



## “Ez dut Gran Via-n bizi den inor ezagutzen”

**Julia Madrazo | Bigarren alkate-ordea Bilbon**

Errekaldeberri auzoan jaio zen eta Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen Zuzenbidea. Hiru seme-alaba dauzka eta Ezker Batuako zinegotzia da Bilbon.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazia: Iñigo Azkona

**Bilbotar batzuei entzunez gero balirudike Euskal Herria Bilbon dela, kontrakoa baino.**

Ezagun da hiriaz zein harro gauden bilbotarrok. Halere lotsarik ez daukat Kontxa, Gas-teizko alde zaharra edota kostaldea gomendatzeko.

**Nola imajinatzen dituzu zure botoemaileak?**

Konprometituta eta lanerako gogoz, baita ondare komunaz arduratsu ere. Jende alai eta ekintzailea.

**Errekaldeberri auzoan jaiota Hirigintza eta Ingu-rumen saileko zinegotzia zaitugu. Gran Vian jaio bazina, auskalo zer!**

Ez dut uste norberaren gaitasuna sorlekuak ezartzen duenik. Garrantzitsuena beteta sentitzea da, eta horretan pozik nago bai abokatu, baita politikari gisa ere. Errekalden ehunka lagun topatuko dituzu edozein zinegotzi pareka dezaketanak.

**Bide batez, nor bizi da Gran Via kalean?**

Ideiarik ez daukat. Ez dut bertan bizi den inor ezagutzen.

**Komunista zara edo zinen?**

Gizarte mugimenduen eskutik sartu nintzen politikagintzan eta inoiz ez naiz alderdi komunistako kide izan. Egia da, halere, denok nahi dugula gizartea eraldatu. EPKrekin beti partekatuko ditugu oinarri ideologikoak.

**Esan didate oso ondo konpontzen zarela Azkuna alkatearekin...**

Bai. Lanean gogor egin dezakegu eta garbi mintzatu, arazoak sortuz gero. Halere ez gara

koadrila berekoak eta ez gabilta elkarrekin poteoan.

**Basagoiti ere urteotan lankide izan ondoren, ederki ondo jakingo duzu zertan den indartsu eta zertan ahul.**

Indar-guneak: azkarra, langilea eta umoretsua da, eta ironia maite du. Ahuldadeak: fribolo xamarra da eta, inoiz, zorrotasun gutxikoa. A! Hedabideak maite ditu!

**Zer moduz zure Bilboko euskara?**

Esfortzu handia egin dut euskalduntzeko, enpresa pribatuan neukan lana eta alfabetizazioa uztartuz. Baina euskaldun berrien beldur tipikoa dut, ongi ez mintzatzearena. Eskerrak seme-alabek –D ereduan dabilta– bultzatzen nauten gehiago hitz egitera.

**Lo aurreko zure instanteen jabe ote da... milaka abertzale bilbotarren boto galarazia?**

Lo aurreko instanteen jabe bakarra norbera da. Dena den, ideien ilegalizazioak ez dakar ezer onik eta ez dio normalkuntzari laguntzen. Halaber, bakegintzari laguntzeko ezinbestekoa da ezker abertzalea bortizkeriaren aurka mintzatzea.

**Lagun batekin geratuta nago Bilbon. Txoko xar-mangarririk aholkatuko?**

Laguna bilbotarra ez bada, lehenengo Artxandara joan eta gero Zazpi Kaleetara. Hitzordu erromantikorako, ibai ertzetan paseatu. Artea eta joera berriak maitez gero, duda barik Bilbo Zaharra. Laguna turista klasikoa baldin bada Guggenheim, Euskalduna, Arte Eder Museoa, Arriaga... Buelta tipikoa. ■